	NIF	6.eranskina 109 PFEZ	Zuzeneko zenbatespenean dauden jarduera ekonomikoen etekinak	

Modalitatea		Arrunta	Erraztua	Lehen sektoreko sistema erraztua		
Jasotzailearen	Jarduera			NekazaritzaAbeltzantza	Arrantza	Basogintza
JEZaren	JEZaren epigrafea					
Jardueraren helbidea						
Jardueraren herria						
Jardueraren probintzia kodea						
Errentatzailea: IFZ						
Errentatzailearen izena/sozietate izena						
Errentamentuaren zenbatekoa						

A	Haserako izakinak					
B	Bukaerako izakinak					
1	Sarrera arruntak					
2	Dirulaguntzak eta bestelako sarrerak					
3	Izakinen aldaketa positiboa					
4	**SARRERAK** (1)+(2)+(3)					
5	Erosketak					
6	Izakinen aldaketa negatiboa					
7	Soldatak eta lan sariak					
8	Enpresaren konturako Gizarte Segu.					
9	Langileen beste gastu batzuk					
10	Errentamentu eta kanonak					
11	Artapenak eta konponketa					
12	Profesionalen zerbitzuak					
13	Kanpoko beste zerbitzu batzuk					
14	FIskalki kengarriak diren zergak					
15	Gastu finantzieroak					
16	Fiskalki kengarria den amortizazioa					
17	Fiskalki kengarriak diren hornidurak					
18	Fiskalki kengarri diren beste gastuak					
19	**GASTUAK** batura (5)etik (18)ra				%90	%65 - %75
20	**DIFERENTZIA** (4) – (19)					
21	%10/(20) edo %35 nekazaritza-abeltzantza edo %60 garraioa bada					
22	**AURREKO ETEK. GARBIA** (20)-(21)					
23	Ondare elementuen irabaziak					
24	Salbuespena berrinbertitzeagatik					
25	Ondare elementuen galerak					
26	**ETEK. GARBIA** (22)+(23)-(24)-(25)					
	Haserako murrizketa %10/(26)					
	ETEKIN GARBIA					

27	Entitatearen IFZ					
28	Sozietatearen izena					
29	Esleipen %	%	%	%	%	%
30	**ESLEITUTAKO ETEKINA** (26)x(29)					

31	O.zatikatuak, atxikipenak….					

Kontabilitatea Merkataritza Kodearen arabera						
Sarrerak eta salmentak	Ale kopurua/ orri kopurua	/	/	/	/	/
	Idazpen kop/azkenaren data	/	/	/	/	/
Gastuak eta erosketak	Ale kopurua/ orri kopurua	/	/	/	/	/
	Idazpen kop/azkenaren data	/	/	/	/	/
Inbertsio ondasunak	Ale kopurua/ orri kopurua	/	/	/	/	/
	Idazpen kop/azkenaren data	/	/	/	/	/
Kutxa	Ale kopurua/ orri kopurua	/	/	/	/	/
	Idazpen kop/azkenaren data	/	/	/	/	/
Fondoak eta osakinak	Ale kopurua/ orri kopurua	/	/	/	/	/
	Idazpen kop/azkenaren data	/	/	/	/	/

NOLA BETE ERANSKINA

Eranskin hau JARDUERA EKONOMIKOAREN ETEKIN GARBIA KALKULATZEKO ZUZENEKO ZENBATESPENAREN METODOA (MODALITATE ARRUNTA ETA ERRAZTUA) erabiltzen duten zergadunek beteko dute. Jarduera baten etekina modalitate eta prozeduraren arabera jasotzeko prestatuta dago eranskina. Zergadunak jarduera gehiago egin baditu, behar adina eranskin aurkeztuko ditu.
Zerga oinarria zehazteko erregimen honetara biltzen den jarduera bakoitzeko, jarraian azaltzen diren datuok beteko dira.

DATU OROKORRAK

Modalitatea: bete dagokion zutabea erabiltzen den modalitatea kontuan hartuta (Arrunta, Erraztua edo Erraztua-nekazaritza-arrantza-basogintza).
Jasotzailearen gakoa: "A" jarriko da etekina jaso duena aitortzailea denean, "E" ezkontidea edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikote-laguna denean, eta "S1", "S2"..... mota honetako etekinak lortu dituena adingabeko seme-alaba denean.
Jarduera: jarduera ekonomikoa adieraziko da.
JEZaren sekzioa/JEZaren epigrafea: Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan jarduerari dagokion sekzioa eta talde edo epigrafea jarriko dira.
Jardueraren helbidea eta udalerria: jardueraren helbidea eta udalerria adieraziko dira.
Jardueraren probintzia kodea: jarduera ekonomikoa egiten den probintziako kodea jarri behar da.
Errentatzailea: jarduera burutzen den lokalaren errentatzailea pertsona fisikoa denean, IFZ eta izen-abizenak jarriko dira, eta pertsona juridikoa izanez gero, IFZ eta sozietate izena. Errentamenduaren zenbatekoa ere jarri behar da.

Izakinen barizaioren bat aitorkuko balitz, nahiz positiboa, nahiz negatiboa, hurrengo kuadrotxoetan zera ipini beharko da:
Haserako izakinak: Urte haseran dauden izakinak ipiniko dira.
Bukaerako izakinak: Urte bukaeran dauden izakinak ipiniko dira.

JARDUERAREN ETEKINA

I - Modalitate arrunta: Sozietateen gaineko Zergaren arauak eta urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren 25. artikuluan ezarritako erregela orokorrak aplikatuko dira. Gainera, 3/2014 Foru Arauaren 27. artikuluan jasotzen diren erregela bereziak ere hartuko dira kontuan.

Etekin garbia modalitate honen bitartez kalkulatzeko, gehitu edo kendu egin behar dira jarduera ekonomikoari atxikitako elementuak saltzeagatik izandako irabazi edo galerak, Sozietateen gaineko Zergaren araudiaren arabera kuantifikatuak. Gainera, aparteko mozkinak berrinbertitu badira, Sozietateen gaineko Zergaren araudian xedatutakoa ere aplikatuko da.

II - Modalitate erraztua:
A) Modalitate erraztua: lehenik, sarrerak eta gastuak kalifikatu eta kuantifikatuko dira, Sozietateen gaineko Zergaren araudian eta modalitate arrunterako aurreikusitako arauetan ezarritakoaren arabera. Kanpoan utziko dira hornidurak, amortizazioak eta jarduerari atxikitako ondare elementuetatik eratorritako irabazi eta galerak.

Ondoren, sarrera eta gastu horien arteko diferentzia kalkulatuko da. Ateratzen den zenbatekoari %10 gutxituko zaio amortizazio, hornidura eta gastu justifikagaitzengatik. Jarduera nekazaritza edo abeltzaintza denean, berriz, %35 gutxituko da kontzeptu berberengatik. Eta jarduera garraioa bada, %60.

Horrela lortutako zenbatekoari gehitu edo kenduko zaizkio jarduerari atxikitako ondare elementuetatik eratorritako irabazi eta galerak, Sozietateen gaineko Zergaren arauen arabera kuantifikatuak.

B) Modalitate erraztua: arrantza jarduerarako erregela berezia: lehenik sarrerak kalifikatu eta kuantifikatuko dira jarduerari atxikitako ondare elementuetatik eratorritako irabazi eta galerak sartu gabe. Sarrera hauei %90aren murrizpena aplikatuko zaie.

Lortutako zenbatekoari gehitu edo kenduko zaizkio jarduerari atxikitako ondare elementuetatik eratorritako irabazi eta galerak, Sozietateen gaineko Zergaren arauen arabera kuantifikatuak.

C) Modalitate erraztua: baso jarduerarako erregela berezia:

Lehenik sarrerak kalifikatu eta kuantifikatuko dira jarduerari atxikitako ondare elementuetatik eratorritako irabazi eta galerak sartu gabe. Sarrera hauei %65aren murrizpena aplikatuko zaie. Portzentaje hori %70 izango da ustiaturiko azalerak zergadunak basoberritu dituenean.

Lortutako zenbatekoari gehitu edo kenduko zaizkio jarduerari atxikitako ondare elementuetatik eratorritako irabazi eta galerak, Sozietateen gaineko Zergaren arauen arabera kuantifikatuak.

Jardueraren etekin garbia bi edo bost urtetik gorako epean sortu bada, eta bakar-bakarrik etekin garbiaren %60 edo %50, hurrenez hurren, konputatu beharko da.

Aurreko modalitate guztietan, Sozietateen gaineko Zergaren araudian xedatutakoa aplikatuko da aparteko mozkinak berrinbertitu badira.

ERRENTEN ESLEIPENA

Jarduera egiten dutenak sozietate zibilak, ondasun komunitateak edo martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 35.3 artikuluan aipatzen dituen gainerako entitateak badira, etekin garbia bazkide, komunero eta abarri esleitzeko kasu bakoitzean aplikagarri diren arauei jarraituko zaie.

Lehendabizi, entitatearen IFZ eta sozietate izena adieraziko dira eta, gero, zergadunari dagokion esleipen portzentajea.

Esleitutako etekin garbia esleipen portzentajea jardueraren etekin garbiarekin biderkatuz lortuko da.

JARDUERAREN HASIERAKO MURRIZPENA

Jarduera ekonomiko bati ekiten dioten zergadunek haren etekin garbi positiboa % 10ean murriztu ahal izango dute

KONTURAKO ORDAINKETAK

Hemen adieraziko dira zergadunak, 130 ereduaren bitartez edo helbideratuta, jarduera bakoitzagatik egin dituen ordainketa zatikatuak, bai eta jasandako atxikipen eta konturako sarrerak ere.

Errentak esleitzeko erregimenean dauden entitateak izanez gero, bazkide, komunero, etab. bakoitzari dagozkion atxikipen eta konturako sarrerak jasoko dira hemen.

ERREGISTRO LIBURUAK

Kontabilitatea Merkataritza Kodearen arabera eramaten bada, ez dago erregistro liburuak eramateko obligaziorik.

Obligazioa edukiz gero, liburu mota bakoitzeko honako datuok beteko dira: liburua osatzen duten ale kopurua, zergaldian erabilitako folio kopurua, zergaldi horretan egindako idazpen kopurua, eta azken idazpenaren data.